


ttipi-ttapa

1993.eko Urriak 7

119. zenbakia

dohain banatzen da



**BONBEROAK: SUA HILTZEA
BAINO ZERBAIT GEHIAGO**

EXPOSICION ERAKUSKETA

"TURISMO Y DESARROLLO ECONOMICO"
"TURISMO ETA DESARROILO EKONOMIKOA"

BERTIZ



PARTZUERGO
TURISTIKOA
CONSORCIO
TURISTICO

Urriaren 18tik 31ra Elizondoko Kultur Etxean

Ordutegia arratsaldeko 5etatik 9etara

Turismo Partzuergoak erakusketa hau ikustera gonbidatu nahi dizue
bereziki ondorengo herriotako biztanle guziori:

BAZTAN, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDI

non - zer

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Patxi Larretxea, Pello Apezetxea, Edurne Rekondo, Bittori Telletxea.

Ale honetan parte hartu dute: Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Marta, Mirari, Txema Aldabe, Ixabel, Josune, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Ainhoa Mutuberria, Koro Irazoki, Margari, Pello Etxegia, Daniel Martiarena, Txema Urrotz, Patxi Otxandorena, Joseba Azpiroz, J. Igarabide, Pablo Mendiburu, Juana Mari Saizar, Mixel, Jacqueline, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa eta Josetxo Susperregik.

Argitaratzailea: *ttipi-ttapa*.

Laguntzaileak: Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Goizueta, Leitza eta Berako udalak...

Inprimategia: Gertu Kooperatiba Elkarte (Oñati)

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85

Tirada: 5.600 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA

Tfnoa.: 63 11 88

Faxa: 63 12 91

4 AGENDA Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.

7 HONTAZ ETA HARTAZ

8 IRAKURLEAK MINTZO

9/25 HERRIZ HERRI

Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarana, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...

26 ERREPORTAIA: Bonberoak: Sua hiltzea baino zerbait gehiago; Oronoz-Mugairiko parkeko bonberoekin solasean.

Aitor Arozena

28 ELKARRIZKETA: Beratar espedizioa, Kilimanjarotik bueltan; irailaren 12an lortu zuten Afrikako mendi altuenaren gaina.

Aitor Arozena

30 MERKATU TTIKIA



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko laguntza jaso du

Beharrezko telefonoak**SOS Nafarroa / Urgentziak...088/061 OSASUN ZENTRUAK**

Elizondo.....452367 / 580235
 Doneztebe450300
 Lesaka.....637428/637336
 Leitza510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun453039
 Gartzain580451
 Oronotz-Mugaire592024
 Ituren450183
 Sunbilla450283
 Goizueta514067
 Igantzi637755
 Arantza634131
 Bera.....630929 / 630036
 Etxalar.....635105
 Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea614600
 Nafarroako ospitalea102100
 SSko urgentzi zerbitzua246750
 Virgen del Camino
 erresidentzia109400
 Gurutze Gorria226404

ANBULANTZIAK

Oitz450242/450805

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943)464622
 Doneztebe (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Doneztebe.....(908)776314
 Lesaka.....637404
 Elizondo580924

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire592255

GARRAIOAK

Bidasotarra630279
 Baztanesa580129
 Leitxaran515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:

Elizondo580730
 Lesaka.....637154
 Bera630261

ABERIAK:

Iberduero450335/450336

Botikak

► **Urriaren 9-10ean,**
 Lesaka, Ituren eta F.
 Lezaun (Elizondo).

► **Urriaren 12an,**
 Etxalar, Ituren eta F.
 Lezaun (Elizondo).

► **Urriaren 16-17an,**
 Etxalar, Narbarte eta J.
 Iturralde (Elizondo).

Ikastaroak**► ELIZONDO**

• 'Pertsonen arteko harremanak' ikastaroa. Urriaren 15 eta 16an.
 • 'Mobleen berriztatze' ikastaroa. Urriatik abendura.

Kantaldiak

► **GARTZAIN**
 Urriaren 10ean,
 arratsean, *Erramun*
MARTIKORENA.

► **URDAZUBI**
 Urriaren 9an, gaueko 11etatik 6etara, kantaldi-gaupasa: *Piskerra, Guk, Txakun, Ortzi, Beñat Axiari, The Erriberos rock, Erramun Martikorena eta Nafarroako gaiteroak*.

► ZUBIETA

Urriaren 16an, *Balderdi-Balderdi, Pottoka* eta *Los Dinosaurios*.


Bertsoak

► **DONAMARIA**
 Urriaren 9an, bertso bazkaria Mañukorta, Murua eta Bittor Elizagoien bertsolariekin.

► **SUNBILLA**
 Urriaren 16an, bertso afaria Mañukorta, Murua, Xebastian Liza-so eta Estitxu Arozena bertsolariekin.

Erakusketak

► **ELIZONDO**
 Urriaren 18tik 31ra, Bertizko Partzuergo Turistikoari buruzko erakusketa.

Bota bertsoa**Eneritz MITXELENA**

Bortzirietako Bertso Eskola
Gaia: Ai, gure Euskal Herria
Doinua: Peñagarikanorena

Gure lur hontan hizkuntzagatik ez dugu jo nahi atzera euskera bera baino gehiago aditzen bait da erdera Iparraldean aldiz frantsesa oso nabarmen gainera zabal dezagun euskera gu euskaldunak bait gera (bis) denak euskaraz hitz egiteko izan dezagun aukera herri honetan joka dezagun euskaldun jator antzera (bis).

Euskal Herria bat izateko egin nahirik ahalegina Hegoaldea España dela errateak dakar mina Iparraldea berriz Frantzia hori da joku zikina denek nahi dugu berdina Euskadi batuan grina (bis) eta ez pentsa hori gaurkoan denikan gauza ezina saiatuz gero lortuko dugu hori da gauza jakina (bis).

Bestak

▶ ETXALAR

USATEGIETAKO IGANDEA

Urriaren 17an, arratsaldeko 5,30etan Berako GURETXOKOA dantza taldea. Dantzaldia EGAN taldearekin.

▶ GARTZAIN

Urriaren 9tik 12ra (ikus xehetasunak 20. orrialdean).

▶ ETXALAR

Urriaren 16an, *EH Sukarra, Hor Konpon* eta *Ametsgaizto* frontoian. Ondotik, *Izan* taldearekin dantzaldia.

Antzerkiak

▶ SUNBILLA

Urriaren 16an, Peter Roberts antzerkilariaren *'Marratxo'* antzeslana.

Gastronomia

ALMEJAK SALSA BERDEAN



Carmen PIKABEAk emana
BERA

Osagaiak 4 lagunendako:

Kilo bat almeja, 3 baratxuri ale, goilare bat irin, limoi erdi bat, 3 goilare olio, baso erdi bat ardo txuri, perrexilak eta gatza

Almejak ongi garbitu. Paratu olioan berotzen eta baratxu-

ria ongi xehetua prexitu bertan. Gorritzen denean bota almejak eta utzi ireki arte. Baso erdi bat ur jarri eta irina bota, dena ongi nahasiz.

Gero bota almejak dauden kaxulara eta nahasi.

Ondotik ardo xuria, limoi zumoa, gatza eta perrexilak bota.

10 bat minutu eduki egiten.

Baserriko feria

▶ ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kiloko): 2.700 pzta. **Zerrigizena** (95-100): 125 pzta./kilo **Zerramak**: 78 pzta./kilo bizirik.

▶ BEHIKIA

•Aretze gizenak:
Idixkoak: Pzta/kg. Kanal Extra.....600-640
1.koa.....570
2.koa.....550

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal Extra.....620-650
1.koa.....600
2.koa.....580
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

•Behi zaharrak:

Behi nabar gizena: 430 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 450-460 Pzta./Kg. Ka-

nal.

•Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 25.000 artean eta idixkoak 33.000-40.000 Pzta. artean.

Mestizoak: urruxak 35.000-40.000 eta idixkoak 45.000-55.000 Pzta. artean.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43
DONEZTEBE

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 BERA

TXOKO erretegia

Bazkari, afori eta gosariak

ITUREN - Tfnoa: 45 04 91



Komunitotako
erreportaiak
argazkiak eta
bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40
ELIZONDO

Eta orain, zure
koloretako argazkiak
**ORDU BATEZ
ERREBELATUAK**
ditugu



Beatriz Maskotena

Urdazubiarra. Benta batean langile


- ▶ **Jendearekin tratatzeko zer behar da?** Amabilidadea eta serbizio ona.
- ▶ **Eguneroko klientela ala noizbehinkakoa?** Egunerokoa.
- ▶ **Zerbitzatzera, frantsesak ala espagnolak?** Iparraldekoak eta Hegoaldekoak.
- ▶ **Zer da zure lanean gehien gustatzen zaizuna?** Zaharskoei zirikatzea.
- ▶ **Asteburuak libre ala lanean?** Libre, larunbat arratsetan besta egiteko.
- ▶ **Denbora librean zer?** Landibar barna pasaietan ibili.
- ▶ **Urdazubiko bestak ala ñauteriak?** Ñauteriak, etxez etxe mozkor batean egun guziaz ibiltzeko.
- ▶ **Bakantzetan norat?** Aurten Andaluzia alderat.
- ▶ **Bizitzeko, Urdazubi ala Baztan?** Urdazubi, bakoitza bere xokoan.
- ▶ **Lan egin ala estudioak?** Lan egin.
- ▶ **Patxarana ala arnoa?** Patxaran piskat asteburuetan bihotza animatzeko.

▶ **Baraka edo mundu zoragarria**
Ron Fricke
EEBB- 1992

Mundua daukan leku eta modu harrigarriak erakusten digu filme bizi honek

Gure mundu honen historia, gizakien historia eta egoera ikuspuntu humanista batetik. Nazionalitate, erlijio eta hizkuntz guzien gaitetik edo horiek denak alde batera utziz. Horretan dago oinarritua 96 minutu irauten duen filma hau.

Sei kontinente eta 24 herrialdeetan egina dago pelikula: Tanzania, Txina, Brasil, Japonia, Kuwait, Kanbo-



Gizakien historia eta egoera ikuspegi humanista batetik ikusten da

ya, Iran, Nepal, Estatu Batuak eta Europako zenbait leku.

Munduaren eboluzioa musikaz lagundua agertzen zaigu, ez baita inor mintzatzen filmean. Herrialde pila bateko musika hartu eta lan bikaina egin ondok dena lotua

eta landua; Dead Can Dance, Somei Satoh, Anugawa eta Stearms denen lotzaille eta koordinatzailea.

Arnasa, bi ziaren hasiera edo bedeinkapena da Baraka hitzaren erranahia Sufi hizkuntzan.

Ron Fricke zuzendariak


'Koyaanisquatsi' filma egiten lagundu zion Francis Ford Coppolari errealizadore bezala, 1984. urtean.

MARIANO

EKAITZA OSTATUA

PUY

Altzate - BERA



MALDAERREKA S.A.

«La Suiza» Aseguro mota guziak

Bittiria karrika - Tfnoa: 637404- LESAKA

Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA

LEGARRA

• PAPERTEGIA • TABAKOAK •
• LIBURUAK • OPARIAK •

ZERBITZU BERRIAK

- ∞ A-3 eta A-4 fotokopiak
- ∞ Inprenta lanak enkarguz
 - ∞ Kautxuzko zigiluak
 - ∞ Kartelak eta fakturak
 - ∞ Enkuadernazioak...

Legarra 9, © 637030 - LESAKA

Bertizko Turismo Partzuergoak

Tekniko-Administratibo lanpostu deialdia zabaldu du


Bertizko Turismo Partzuergoak tekniko-administratibo lanpostu bat betetzeko deialdia zabaldu du. FP-II administratibo titulua, mekano-grafia eta euskararen ezagupenak, solasteko nahiz idazteko dira bete beharreko baldintzak. Kurrikuluma ere baloratuko omen da.

Doneztebeko INEM bulegoan aurkeztu behar da kurrikuluma urriaren

13a baino lehen. Informazio gehiago eskuratzeko 450309 telefonora dei daitezke.

Erakusketa zabalik

'Turismoa eta garapen ekonomikoa' erakusketa Donezteben egon ondotik, urriaren 18tik 31ra egonen da zabalik Elizondoko Kultur Etxean. Hilaren 28an, arratseko 8,30etan leku berean egingen den bilerara batera deituak daude inguruko ostatu eta dendak.



'Urrezko Ezteiak' betetakoak omendu zituzten Elizondon

Arkupeak elkarteak antolatuta, irailaren 30ean



50 urte ezkondurik bete duten senar-emazteak omendu zituzten irailaren 30ean Elizondon, Arkupeak elkarteak, CANeko 'Club Edad de Oro' ren laguntzarekin antolatutako ekitaldian. Omenaldian, Ricardo de Leon, Nafarroako Gobernuako Ongizate saileko kontseilaria egon zen.

Eguerdian meza izan zuten, Elizondoko abes-

batzak eta bertsolariek alaituta. Sariak banatu eta gero, bazkaldu egin zuten frontoian. Bazkalondoren, 'Montaña y Ribera' jota taldearen emanaldia aditu zuten. Besta hau akitzeko, dantzaldia izan zen Zeus taldearekin.

Omenduen artean, Zubietako Jose Antonio Loiarde eta Eulalia Elizalde (argazkian) 64 urte daramazkite ezkondata.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- ✎ Langile Autonomoak
- ✎ Nekazariak eta mendi langileak
- ✎ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ✎ Lan-kontratatutako laguntzak
- ✎ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ✎ Diru-laguntza ezberdinak
- ✎ Kontabilitateak
- ✎ IVA eta IRPF
- ✎ Errenta aitopenak
- ✎ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ✎ Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



HERRI KIROLAK: AURRERA DOAN PROIEKTUA

Urte bukaeran gaude eta herri kirolean denboraldia amaitzeaz dugu. Zorionez, azken urteotako gozantzako joera mantendu dugu aurten ere, eta jende pila batek eginiko lanari esker gure herriko kulturari hain garrantzitsua du-

gun alor honetan egunetik egunera jende gehiago murgiltzen da. Halere bada oraindik zeregin eta hortan saiatzen ari gara Herri kirol Federazioan gauden guztiok gaitzeko kirolari guztiokin batera.

Baina aurtengoan kirolaz gain Federazioak beste berri bat sortu du: bere barnean egon diren aldaketak.

Bi urtez Federazioko idazkaria izan denak, Andoni Irigoienek bere postua utzi du. Honek ez du suposatzen herri kirolarekin zuen harremana moztea, aitzitik, bere inplikazio maila mantenduz eta ikasitako guztia gal ez dadin Federazioko Juntan sartu da.

Baina aldaketa gehiago egon da, pozgarriak izan ez badira ere.

Mattari Alzuartek eta Mikel Ibarrolak Federazioa uztea erabaki dute. Erabakia hartzeko izan dituzten arrazoiak, zuzenak ala okerrak, errespetagarriak iruditzen zaizkigu, eta hortaz hemendik doakie gure errekonozimendurik haundiena beraiekin egin duten lanagatik.

Halere esan behar dugu pertsonak (ba-

tzuk) aldatu badira ere, Federazio honek zerman bidea eta oraingo berbera dela eta Federazioko juntakide guztiak biltzen dituen gauzarik sendoena Asanbladan aurkeztu eta onartu zen proiektua aurrera ateratzeko gogoia dela.

Nafarroako Herri Kirol Federazioa

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



ERRO BIDAIAK

BIDAI
AGENTZIA
G.A.T. 2.015

- ✕ HERRIAK
- ✕ MENDIAK
- ✕ TURISMOA
- ✕ TREKING eta
BIDAI ALTERNATIBOAK

ADUANAN KALEA, 5

☎ 943 - 615177

☎ 943 - 619489

FAX 943 - 619517

20.300 IRLEN

ETXALARKO UDALA

**Ostatu eta jatetxe zerbitzuak
kontratzeko lehiaketa**

Udal honek, Udaletxeko behean eta lehen solairuan kokaturiko ostatu eta jatetxe zerbitzuak kontratzeko lehiaketa publikora dei egiten du.

Lizitazio basea: Hileko kanona, 45.000 pzt. gehi BEZ
Aurkeztu beharreko agiriak:

Baldintza pleguan agertzen direnak.

Proposamen aurkezpena:

1993ko azaroaren 5eko eguerdiko 12ak arte.

Proposamenak jendaurrean zabaltzea:

1993ko azaroaren 6ko eguerdiko 12etan

Baldintza plegua interesatuaren eskura dago Udaleko idazkaritzan.



Etxalarren, 1993ko irailaren 17an.
Alkateak
Miguel Mari Irigoien

SAROBÉ

okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA

MOLINERO

PINTURAK



Etxe barneko hezetan eta kondentsazio problemak moldatuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoen arabera prezioetan.

Eztegara 19 - ☎ 63 02 40 BERA

Bidasoako IX. Bertso-paper lehiaketa martxan

Gure Txokoa elkarteak antolatua, Baztan-Bidasoa inguruan bizi direnentzat

AITOR AROZENA

Martxan dago Gure Txokoa elkarteak Baztan Bidasoa inguruan bizi direnentzat zabalduko IX. Bidasoako bertso paper lehiaketa. Bertsoak argitaratu gabekoak izan behar dute eta bertze lehiaketaren batetan saririk jaso duten bertsoak ezin dute parte hartu. Norberak aukeratuko du gaia, kantatuko duen doinua eta neurria.

14 urtetarainoko mailan, 4 bertso aurkeztu behar dira guttienez. 14 eta 16 urte bitartekoak, guttienez 6 bertso egin behar dituzte eta 16 urtetik goitikoek zortzina bertso aurkeztu behar dute.

Bertsoak Gure Txokoa elkartearen helbidera urriaren 20a baino lehen bidali behar dira, lehiaketa hauetan erabili ohi den sistema erabiliz.



Argazkia: GOIKO

Gure Txokoa eta Beti Gazte futbol-sala taldeek jokatu zuten lehen partidu ofiziala Toki Ona polikiroldegian

Agerrako bizilagunak haserre gasbidea dela eta

Agerra auzoko bizilagunen elkarteak bere dimisioa aurkeztu dio udalari. Bizilagunen ustez, gasbideari buruzko informazio gutti eman du udalak eta "interes partikularren alde jokatu du, kolektiboak alde batera utziz".

Akordio hau tamalga-

rria dela eta emandako arrazoiekin ez dagoela ados erran du udalak. Lanek, beharrezko baimenak dituzte eta ohizko publizitatea eman omen zaie. "Tuberia pasatu den bertze auzoetan ez da polemikarik sortu eta horregatik ez da propaganda egin".

ttipi-flash

□ 1.974 pertsona pasatu dira udan Berako Turismo Bulegotik. Bisitari gehienak Euskadiko Autonomia elkartetik etorri ziren (% 27,5). Ondotik, katalandarrak, madrildarrak, frantsesak eta nafarrak. Abuztuan, egunero 43 pertsona inguru igaro da Turismo bulegotik.

BOAN TAILERRA



KOTXE BERRIEN

ERAKUSKETA ETA SALMENTA
Herriko Etxeko Plaza - BERA

ETXEGARAI BIDEO KLUBA

Telebista eta Bideoak
Antena kolektiboak eta
banakakoak
Konponketa tailerra

Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK
BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

LABEZAR
© 631076 • BERA

GRUPO ZURICH

ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63



Legia 11 - 63 06 64 BERA

LESAKA

Euskal jaia eguraldi ilunarekin ospatu zen

Halere, aintzinetik antolatutako ekitaldi guziak burutu ziren

AITOR AROZENA

Eguraldi euritsuak lagundu ez bazuen ere umore onean joan zen Tantarumairu dantza taldeak irailaren 26rako antolatutako Euskal Jaia.

Goiz goizetik, musika aditu eta dantzariak ikusteko aukera izan zen karrika bustien barna. Herriko Tantarumairu eta Irain dantza taldeetaz gain, Ainhoako Atsulai eta Soraluzeke Ametsa izan genituen bisitari. Eguerdian, Bortzirietako bertso eskolako gaztetxoak, Lesakako abesbatza eta txalaparta aritu ziren eta arratsean berriz, Tantarumairu txaranga. Tartean haur jokoak izan ziren frontoian.

Herriko Etxean, Tantarumairu dantza taldearen azken 12 urteotako argazkiekin eta Nafarroako dantzari jantziekin erakusketak zabaldu ziren.



Eguraldia goibel egon arren, alai-alai dantzatu zuten gaztetxoek



Kolorez bete zituzten karrikak beraien dantza jantziekin

KARMELE

KARMELE

ttipi-flash

- 'Toni Constant y sus mariachis' musika taldeak joko du larunbat honetan (hilak 9) Herriko plazan.
- Bilerak egiteko leku bat udalari eskatuz, firma bilteta egina du Gazte Asanbladak.
- Mobilizazioak izan dira Gurutze Iantzi eta Xabier Kalparsoreoren heriotza dela eta. Manifestazioak eta asanbladaz gain, pintadak ere agertu dira herriko paretetan. Gogoratu behar da Gurutzek lehengusu eta izeba propioak zituela Lesakan.
- Kirol ekitaldiak bultzatzeko eta gestionatzeko asmoarekin Bidasoa Kultur Zerbitzuak kontratatu du udalak urte beterako, 344.000 pezetan alde.
- Beti Gazte elkarteak antolatuta, lera edo tri-neo zakurren laisterketa ikusteko aukera izanen da hilaren 16 eta 17an.

ARRANO

OSTATUA
Legarrea - LESAKA

XATURETXEA
FONDA
Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

SASKI
OSTATUA
LESAKA

IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA
Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

LORA DENDA
TXIRULA
Bittiria 627542 LESAKA
bitxikeriak • opariak • eskulangintza

EROSLE
LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hobereena

Frexkuena
zugandik
hurbilago

Bittiria 67 - Tfnoa:637264

Saratarrek bisita egin ziguten irailaren 26an

EH Sukarra, Hor Konpon eta Ametsgaizto taldeen kontzertua urriaren 16an

PELLO eta ALBERTO

Irailaren 26an saratar dantzarien eta txistularien saio polita ikusi ahal izan genuen. Etxalartarrekin topaketa edo elkartze eguna ospatzeko opari hori ekarri baitziguten. Beraiei lagun eginez Etxalarko dantzariak ere eman zuten bere erakustaldia, txistulari eta trikitilariekin. Beranduak eman zion bi herrien elkartzeari bere firma edo sinadura, Gregorio Mitxelenak musika goxoz giroa alaitzen zuen bitartean. Gero ere Saratik etorritako gaiteruak ostatuan aritu ziren lagun artean. Heldu den urtean berriz elkartzeko gogoz gelditu zen jendea.



PELLO

Nor oroitzen da herriko bestetaz? Atzo ziren oraindik eta hilabeteak joan direla dirudi. Izan ere, eguraldi hotzak negura begira paratu gaitu

Herriko ostatua hartzeko baldintzak

Azaroaren 5era arte bilduko ditu Udalak, hartu nahi dutenen eskeintzak. Hurrengo egunean begiratuko ditu, eta egokiena

iduritzen zaiona aukeratu. Baldintza nagusien artean honako hauek: tresneria eta ontziteria guziaz hartzen duenak bere kontura paratu beharko du: hileko 45.000 pezeta, gutie-

nez, ordaindu beharko dio Herriari; hartzaileak ostatua bere esku eduki dezakeen epea bortz urtetakoa da, gehienez ere hamar urtetara luzatuko dena, sei-garrenetik aintzinera kontratua urtero berrituz.

EH Sukarra, Hor Konpon eta Ametsgaizto taldeekin kontzertua izanen da urriaren 16an (Usategietako igande bezpera) frontoian. Ondotik Izan taldearekin dantzaldia. Biharamonean, Gure Txokoa dantza taldea eta Egan taldearekin musika izanen da.

Eskolan solfeoaren emaiten segitzeko 170.000 pezeta emanen ditu udal-ikasturte honetarako.

BEREAU jatetxea

Lesakako Bidegurutzean
Tfnoa: 637382 - LESAKA



EKAITZA CAFE

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko toki egokia

Tfa: 948 - 627547
Plaza Berria 13 - LESAKA

KOSKILLA OSTATUA

Larunbatetan mus txapelketak sari ederrekin

Zarandia 4 - LESAKA



KATTU OSTATUA JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • LESAKA



«U S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR



KIROLAK ZELA
Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98
BERA

IGANTZI

Aurten ere eguraldi nahasia eta euria izan dira bestetan

Iduri du azkenean Bentako errepidea moldatu behar digutela



Ez pentsa gero bestetan lan egiten dutenek ongi pasatzeko tarterik arrautzen ez dutenik. Denetarako izaten da denbora. OSKAR



Aurtengo bestetako egitaraua gehienek gustokoa izan delakoan gaude. Baita 'mutil gazteentzat' ere. OSKAR

OSKAR TXOPERENA

Berri hauek idazte-rakoan, bestak bukatu ez badira ere, orain arte pasatutakoaz aipamen tiki bat egin gabe ezin utzi. Ez digu aurten ere eguraldiak sobera lagundu baina aintzi-

neko asteko erauntsietaz oroitzuz nola ez konformatu! Iazko zakur berak - Xarpak- irabazi zuen artzai zakur lehiaketa. Jende gutti, euria eta hotza...

San Migel egunean, herriko dantzarien eta bertso-

larien saioa (aurten ere elizan eguraldia medio) aipatu behar. Dantzariak berriro hasi zaizkigu hainbertze urtetan talderik gabe egon ondotik. Ortzegunean denetik izan zen; alde bategatik, egun guzian umore eta

giro ona nagusitu ziren zikiro jatean, trikitilariekin... Gauetz berriz, zenbaitzuei 'lanean' aritzea gogoratu zitzaizen eta herriko argiak zuzentzen dituen zentraltxoa hankaz gora bota zuten, herria ilunpean utziz.

MANUEL MARTIN

Barnekalderako dekorazio dendak
Zerbitzu hauek eskeintzen dizkizue


- Era guztietako gortinak, kamilla bolanteak, edredoiak eta maindireak.
- Alfonbrak, bertakoak eta inportaziokoak Nepalekoak, Turkiakoak, Pertiakoak, Txinakoak...

Bertan egiten ditugu produktu guztiak

25 urtetako esperientzia

Bisita gaitzazu

Serapio Mugika 8
Tfnoa: 943-616603
IRUN



Pasajes 3
Tfnoa: 943-511598
ERRETERIA

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Zurezko zoletan nahi duzuna

BERA ☎ 630735 • IRUN ☎ (943) 622305



ORDOKI

ALTZARIAK

Estilo guztietako mogleak

ERAKUSKETAK:

Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
SALMENTAK: Plaza Zaharra 27
Tfnoa: 637034 - **LESAKA**

Larunbat
arratsaldetan
zabalik

Nesken herri kirol taldea Nafarroako hirugarren

Bertzalde, Igantziko Bentatik Arantzarako bidea moldatzen ari dira

MIRARI eta MARTA

Irailaren 25ean Nafarroako herri kirol txapelketa jokatu zen Beran. Arantzatik nesken taldea bakarrik klasifikatu zen finalerako. Hirugarrenak gelditu ziren, lau segundogatik Basaburuakoak lortutako bigarren postua galduz. Hirugarren postuari zegokion kopa hartu eta ondotik afaria izan zuten Zalain jatetxean.

Karretera

moldatzeko lanak

Aspaldi espero genituen obrak hasi dituzte: karretera moldatzekoa alegia. Igantziko Bentatik Arantzarako bi kapa brea bo-

Nesken herri kirol taldea, bigarren postutik 4 segundutara gelditu zen
KARMELE



tako dira. Bertzaldetik, or-migoiezko kunetak paratzen hasiak dira dagoeneko.

□ Bagatxarko ehiztari-ek Aientsako Miaka

menditik Urritzmiakarako pista moldatu zuten, masa emanez. Gastuak beraiek pagatu omen dituzte.

□ Organo emaileak etorri ziren irailaren 30ean

Arantzako eskolako 6., 7. eta 8. garren mailako neska-mutikoei hitzaldi bat ematera. Txartelak eskolan bertan utzi dituzte, jendea apunta dadin.

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA

TXOKOA OSTATUA

X Eguneko menua
X Asteburutan, kaxuelak eta karta
X Gosari, bazkari eta afariak aintzinetik eskatuta
X Pintxoen espezialduak X Gazte giroa
Tfnoa: 630286, Altzate • BERA

NATUR ETA ESKU TERAPIA

QUIROPRAKTIKA

Sendatzeko modu naturala da. Interesatzen bazaiztu deitu telefono bontara:

☎ 45. 16. 42



Inzakardi 3 - 1. A eta B - **DONEZTEBE**

KOXXKONTA



Sagardoa botiletan salgai

Deitu erreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - **LESAKA**

Kultur ekitaldiak, urriaren 16an

Peter Robertsen antzerkia eta bertso afaria Ulibeltzak elkarte

JOSUNE ETA AINHOA

Malerrekako Euskara zerbitzuak eta Sunbillako udalak zenbait kultur ekitaldi antolatu dituzte urriaren 16rako.

Arratsaldeko 5etan, pilotalekuan antzerkia izanen da Peter Robertsen eskutik. Bertze aldetik, egun berean, gaueko 9etan Ulibeltzak elkarte, bertso afaria bertsolari hauekin: Sebastian Lizaso, Estitxu Arozena, Iñaki Murua eta Mañukorta. Afari honetan parte hartu nahi duenak, txartelak ostatueta eta elkarte bertan aurkituko ditu.



Herri kirol taldeak indar handia erakutsi du berriz ere KARMELE

Herri kirolak

Sunbillako herri kirol taldeek denboraldi bukatu izugarriko marka lortu dute. Nafarroako proba konbinatuaren txapelketarako, bai neskak eta bai

mutiak finalerako pasea lortu zuten. Ez hori bakarrik, biak irabazi zuten txapelketa hau. Saikapenak honela gelditu ziren:

Neskak: 1.- Sunbilla; 2.- Basaburua; 3.- Aran-

tza; 4.- Lesaka.

Mutlak: 1.- Sunbilla; 2.- Bera; 3.- Araiz-Betelu.

Erran behar da mutiletan laugarren txapelketa jokatu dela aurtengoan eta sunbildarrek hiru urtez txapela lortu dutela. Nesken kategorian berriz, hiru urtez jokatu da eta hiruetan herrikoak izan dira txapel-dunak. Gainera, hiru urte horietan ez dute proba bakar bat ere galdu. Marka handia.

Sukaldaritza ikastaroa

Badirudi aurten ere sukaldaritza ikastaroa egingen dela, nahiz eta oraindik ez jakin non eta noiz hasiko den.

GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta




LIZUN

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

BELARRA Kafetegia

Plater konbinatuak

Amezti 3, Tf.: 45 03 06 - DONEZTEBE



TELLETXEA
MOBLEAK

Moble erakusketa handia

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten dtugu. Fabrikanteak gara.
- Haritz, gereziendo, gatzainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak.
- Tresillo eta tapizerietan aukera zabala
- Ordaiintzeko errextasunak eta zure erosketengatik oparri ona eramanen duzu

Rosa Serminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE

Hontaz eta hartaz, kontu kontari

Azken egunotako berriak, labur-labur eta argazkietan bildua

TXEMA ALDABE

Irailaren 19an bertso saio bikaina eskeini zuten 6 bertsolariak. 300en bat lagun bildu ziren Malerrekako Euskaltegiak (IKAK) antolatutako ekitaldian. (TXEMA argazkia)




Malerrekako Euskara Zerbitzuak antolaturiko Euskararen Astearen barnean zenbait ekitaldi izan dira: euskarazko filmak, bertso-afariak, musika, Pello Añorga ipuin kontalaria, etabar...

17 haur B eta D ereduan eta bat erderaz matrikulatu dira aurten Doneztebeko eskolatan. Denetara 438 dira, iaz baino 20 guttiago (TXEMA argazkia)

Doneztebeko Jubilatuen etxean irailaren 24an eta 26 bikotek parte hartu zuen. Irabazleak Sunbilla A bikotea -argazkian-, bigarren Aniz A, hirugarren Igantzi A eta laugarren Doneztebe B.

(ZALDUA argazkia)



W ttipi-flash

- Zinea** urriaren 29an idekiko da berriz. Iazko datoak hauexek dira: Diru sarrerak 1.891.050 pezeta eta irteerak 2.776.890 pezeta (885.840 pzta zor). Denetara, 5.399 ikusle izan ziren.
- Euskaltegian** matrikulatzeko azken egunak dira hauek. Urriaren 7an (ortzeguna), arratsaldeko 7etan ikasle guzietan bilerak egingen da. Apuntatu ez dena joan daiteke oraindik ere.
- Plastikozko** ur botilak ageri dira zenbait atetan. Euliak uxatzeko erremedio onaa omen da.



**AMEZTIA
Jatetxea**
Especialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
Tf: 450028 - DONEZTEBE

MariCruz
LENTZERIA
Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE

LEGASA

Herriak Don Tiburtzio apezaz omendu zuen

Aspaldiko kontua baldin bada ere, ezin aipatu gabe utzi

DANIEL MARTIRENA

Legasak 45 urtez herriko apezaz izandako Don Tiburtzio omendu zuen joan den abuztuaren leian.

Eguerdian meza izan zen eta zonaldeko apez gehienak bertan zeuden. Ordurako Don Tiburtzio emozionatua zegoen. Gero, plazan dantzariak, bertolariak... dena detailez detaile prestatuta. Ondotik, plazan bertan hameketakoa

banatu zen. Dagoeneko herritar gehienak plazan bilduak zeuden, bazkaltzera Sunbillara joateko asmoarekin, bertan egin bait zuten bazkaria.

Ederki pasatu omen zuten eguna, berrikerian, aspalditik ikusi gabeko lagunak ikusteko aukeraz bait zuen batek baino gehiagok. Denetara, 180 lagun inguru bildu zen Don Tiburtziok 45 urteotan herrian egindako lana eskertzeko asmoarekin.



Don Tiburtziok 45 urte igaro ditu apez bezala Legasan

EUSKARA AURRERA



BAZTAN • BORTZIRIAK • LEITZA-GOIZUETA • MALERREKAko EUSKARA ZERBITZUAK

Joaldunen Eguna irailaren 18an ospatu zen

Gudari Eguna berriz, irailaren 27an egin zen

IBAN ISASI

Irailaren 18an, goizean goiz joaldunak Ameztiatik hasita Lasaga eta Ituren auzoak zeharkatu zituzten, herriko trikitilariak eurekin batera ibili zirelarik. Mindegia aita-seeek irabazi zuten Larretxea eta Olasagastik osatutako bikotearen aurkako aizkol apostua. 120 lagunetik goiti elkartu ziren bazkarian eta ondotik bertsolariak aritu ziren. Dantzaldiarekin eta jatorrarekin akitu zen aurtengoz joaldunen eguna.



Gudari Eguna

Irailaren 27an, Gudari Eguna egin zen. Iturengo

manifestazioan 100 pertsona inguruk parte hartu zuen. Pankartetan azken egunetan hildako Gurutze

Iantzi eta Xabier Kalpar-sororen omenezko hitzak, torturaren aurkakoak eta presoaren aldekoak irakur zitezkeen. Bukatzeko, Herriko Plazan aurrekua jo zuten txistulariak, komunikatua irakurri zen eta Eusko Gudariak abestu zen.

□ **Iturenek** 8.250.797 pezeta jasoko ditu Nafarroako Gobernutik, haue-tatik 5.955.180 pezeta biztanle kopuruagatik dira, 890.697 'Montepío'aren defizitagatik eta 1.404.920 eskola unitateengatik.

ZUBIETA

Udarekin batera, euskaldun berriak joan dira

Balerdi-Balerdi, Pottoka eta Los Dinosaurios-en kontzertua urriaren 16an izanen da

AINHOA MUTUBERRIA

Udazkenean sartu gara eta honekin batera euskaldun berrien egonaldia bukatu da. Bihotz apurtua-rekin, afari batekin eta asteburu bat baserri batean pasatuz datorren urtera arte agurtu ditugu. Orain, herria betiko errutinan sartu da eta bakoitzak bere mar-txan jarraitzen du. Ehiztariak urduri daude, uso bat edo beste hartzeko prest.

Aurreko *ttipi-ttapan* urriaren 9rako Balardi-Balerdi, Pottoka eta Los Di-



nosauriosen kontzertua iragartzen genuen. Plan hauek aldatu behar izan dira, ezin dutelako etorri

egun horretan eta orain ziur 16an izango dela jaia.

Azkenean, Valderejo-rako prestatu genuen bi-

daia eguraldi txarrarengatik ez dugu egin. Euri asko egin du baina eskerrak ez dela beste herrietan bezalako uholdea izan. Aurten ez dugu udarik izan: udaberritik udazkenera sartu gara zuzen zuzenean. Tar-teka eguzkia pixko bat ikusi dugu, baina ez askorik.

Euskararen Eguna oso ongi egon zen. Egunez ez zegoen deus, baina gauez jende pila bat joan zen bertso afarira. Gero, Rekalde anaien musikarekin dantzatu genuen goizeko 6ak arte.

GOIZUETA

Nafarroa eta Iparraldeko bertsolari gazteen lehiaketa urriaren 16an

Egun berean J.J. Aizkorberen abesbatzak emanaldia eskeiniko du

ESTEBAN AROZENA

14tik 25 urte bitarteko Nafarroa eta Iparraldeko bertsolaririk onenak bilduko dira gure herrian hilaren 16an Andres Narbarte 'Xal-to' izeneko txapelketaren lehen edizioa jokatu asmoz.

Nafar Ateneoa eta Goizuetako udalaren laguntzaz, Nafarroako Bertsolarien Lagunak antolatu duen ekintza honen finala gaueko 10etan burutuko da Joxe Manuel Oiartzabalen gidaritzapean, eta bertan 8 bertsolarik parte hartuko dute. Arratsaldean kanporaketa bat egin beharko da, zortzi



14 eta 25 urte arteko bertsolari gazteek parte hartuko dute lehiaketan

hauek hautatzeko.

J.J. Aizkorberen abesbatza

Aipaturikoa gutxi ez

bada ere, urriaren 16an beste kultur ekitaldi bat ikus eta entzun ahal izango dugu gure herrian. Umore Onak

urtero antolatzen duen zaharren eguna aitzakitzat hartuta, J.J. Aizkorbek zuzentzen duen Iruñeko 'Virgen del Río' parrokiako abesbatzak 6etan eskeiniko du bere emanaldia elizan. Aktuazio hau udalak eratzten du 'Arte eta Kultura' kanpainaren barrenean.

☐ **Guraso** elkarteak bere barru hauteskundeak burutu ditu, Felix Loiarte, Jesus Mari Apezetxea eta Fermin Narbarte direlarik junta-kideberriak. Aipagarria da noski, botu-emaile gehienak emakumeak izanik hiru gizon izan direla aukeratuak.

ARESO

Autobiako zubirik haundiena Areson


JUANA M^o SAIZAR

Autobiak bi zubi ditu Areson. Horietako bat autobiako haundiena omen da, 370 metro luzerarekin eta 90 metro altuerarekin. Zazpi pilare eta zortzi beso ditu, bakoitza 42 metrokoa. Ikusgarria izan da nola egin den eta kuriositate haundia

sortu du. Aipatu baita ere, Espainian den grua haundiena ibili dela bigak jartzzen. Grua honek 800 tona zituen eta bere besoa 120 metro luzatzen zen.

☐ **Oñatin** Euskalerriko Artzai eta txakurren egunean, Antonio Alustiza aresoarrak 4. postua lortu zuen.

Zubi haundi hau nola egiten zuten ikustera jende ugari agertu da, batez ere asteburuetan
ARTXIBOA



GAZTELU ITURGINTZA

KALEFAKZIOA

Elgoien 32 • Tfnoa: 510086 • LEITZA



- X Eraiketakako materialak
- X Zeramikak eta bainuak
- X Aluminioko eta PVCzko leihoak

Aurrekontuak egiten dira

Tfnoa: 504410 - LEKUNBERRI

MANGADO Y OCHOAren Banatzailea

Eskola komarkaleko eta irratiko langileak kontratatatuak

Bestalde, 126 ikasle hasi dira aurtengo ikasturtean Lanbide Eskolan

JOSEBA AZPIROZ

Eskola komarkaleko aldi bateko kontrataziorako aurkeztu ziren 13 lagunetatik Martin Astibia atera zuen puntuaziorik altuena, beraz, berari egin dio udalak urte bateko kontratoa.

Karrape irratirako bi langile kontratatuzeko egindako oposizio-lehiaketan berriz, Abelina Zabaleta (Astizkoa) eta Arantxa Iparagirre gelditu ziren aurretik. Halere, Arantxak baldintzetan beharrezkotzat jotzen zen 'Graduado Escolar' titulua ez duenez, hirugarren gelditu zena kontratatuko da, hau da, Anabel Alduntzin.

Bestalde, epea bukatu denean, 40 dira udalak onartu dituen ondasun komunalen (irastorleku, lizar-di...) hitzarmenak. Horrela, 1.452.687 m² etatik, 334.117 partikularren esku geldituko dira eta gainerakoak komunalak.



Gastronomi lehiaketara ez zen inor agertu

126 ikasle Lanbide Eskolan

Lanbide Eskolak 126 ikaslekin hasi du aurtengo ikasturtea. REMeko (Reforma de Enseñanzas Medias) ESO (Educación Secundaria Obligatoria) programako bi kurtsotan 41 dira euskarazko adarrean eta 29 erderazkoan. BAGean (Bachiller de Administración y Gestión) berriz, 19 dira eta Administraziozako bostgarren urtean 22.

Aurten, ikasketekin arazoak dituzten 15 lagunentzako gela bat jarri da lehen aldiz. Hauen hezkuntza alde praktikotik bideratuko da gehienbat, baina izango dituzte klase praktikokoak ere. Orduetgia aldatu egin dute aurten; klasean goizetik izango dira, 8etatik 14,40etara. Halere, kanpotarrak residentzian egoterik izango dute.

W ttipi-flash

- Jesus Eskuderok irabazi zuen Inguruarteko galeper tiraketa.
- Ontto eta zizekin egin beharreko Gastronomi lehiaketara ez zen inor aurkeztu eta eskolako ikasleek egindako marrazkietatik, Zuhaitz Beloki (5 urte), Inaxio Perurena (9 urte), Unai Mariezkurrena (10 urte) eta Maider Zabaletarena (11 urte) aukeratu zituzten.
- EPA ikastaro gehienak datorren astean hastekoak dira: Hilaren 13an, ikastolan, konfekzio industrial (10etan eta 3etan), jostungintza (10etan) eta zeramika (3etan). Egun berean, Lanbide Heziketa Insituitoan ingelesa (6etan) eta mekanografia (6,30etan). Hilaren 14ean, Herriko Etxean, pelukeria (3etan) eta hilaren 18an, LH insituitoan informatika (6etan).

ETA ZURE EUSKARA?

- Ikasteko
- Irakurtzen eta idazten txukun txukun ikasteko
- Eskolako lanetan zure seme alabak laguntzeko
- Jende guztiarekin euskaraz aritzeko
- Zure euskara egokitzeko
- ttipi-ttapa ongi ulertzeko

GARAIZ ZABILTZA !!!

Euskalduntze, Alfabetatze eta EGA ikastaroak
Orduetgi ezberdinak aukeran
Langabetu eta gurasoentzat laguntza bereziak

ANIMATU!!!

INFORMAZIOA:

Euskaltegian, © 610776



BAZTAN

Uholde ikaragarria gertatu zen irailaren 24ean

1903an gertatutakoa gogoratu zuten zaharrenek

JOSEBA IGARABIDE

Dirudienek Auza aldean lehertutako laino baten ondorioz, sekulako euritea jaso zuten Baztango herri batzuk irailaren 24ean.

Bideak moztuak eta ondatuak, zuhaitz eroriak eta errekek gainezka egin zuen, batez ere Elizondoko Jaime Urrutia karrikako denda eta behekaldeetan ura sartuz. Bi haur erreskatatuak izan ziren, beraien etxea urez inguratua gelditu ondotik. Urruska baserria komunikaziorik gabe geratu zen. Kotxeak eramateaz gain, 84 urteko Bautista Soule arizkundarra ere ia eraman zuen urak. Arizkunena, m² bakoitzeko 168 litro ur bildu ziren eta Lekarotzen 105. Zenbait lekutan, ordu erdian lau metro igo omen zen uraren altuera.

Bertako zaharrenak ere ez zuten gogoratzen horrelako igoerarik hain denbora guttitan eta batzuei 1903ko ekainaren 2an gertatutakoa -Elizondoko karriketan bi metrotik goiti egin zuen urak- burura etorri zitzairen, nahiz eta oraingoan susto batean gelditu.



Ordu guttitan izugarri igo zen errekaeren altuera

Zaldúa

Gartzaingo bestak, urriaren 9tik 12ra

Asteburu honetan hasita ospatuko dira Gartzaingo Pilarikaren omenezko bestak, honako egitarauarekin:

Urriak 9, larunbata: 6etan suziria eta ezkilen soinua. 9etan afaria, baztan zopak. Gaupasa Yatagan taldearekin.

Urriak 10, igandea: (Haurren Eguna). 12,30etan meza herritik kanpo dauden gartzaindarren alde; ondotik Baztango dantzariak. 5etan haurren jokoak eta zaldiak herrian barna ibiltzeko. Ondotik txokoltia.

Arratsaldean Yatagan taldea. Ondotik mutildantzak eta Erramun Martikorenaren kantaldia. Gauetz, berriro dantzaldia.

Urriak 11, astelehena: Goizez mus txapelketa. 2etan zikiro-jatea. Arratsaldean eta gauetz dantzaldia Modestorekin.

Urriak 12, asteartea: (Pilarika Eguna). 12,30etan meza Pilarikako ermitan. Ondotik mutildantzak eta hameketakoa denendako. Arratsaldean eta gauetz dantzaldia Modestorekin.

ttipi-flash

□ **Lekarotzen** sagardotegia egiteko asmoa dago. Bertako sagarra -eztixuri, ez-tibeltza eta udare sagarra motakoak- bilduz.

□ **Mobilizazioak** izan ziren Elizondoko Gurutze Iantzi eta Xabi Kalparsaroren heriotzaren ondorioz. Larunbatean asanblada eta ikasleek manifestazioa egin zuten astelehenean. Pintadak eta banko batzuetako kristalak hautsiak agertu ziren.

□ **Xabier Soubelet** Arraiozen bizi den margolariak Irungo udalak antolatutako Adour-Bidasoa Margo lehiaketako lehen saria eskuratu du, bertze 150 lanen artean, 'Arizkongo Eliza' rekin Soubeletek Iruñea, Madril eta Argentinako Euskal Etxean erakutsiko dituzten bere lanak.

□ **Argazki zaharren** erakusketa izanen da Arizkunenea Kultur Etxean urriaren 8tik 30era. Erakusketa egiteko Baztanen barna bildu dira argazki hauek.

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

UDAZKENEKO ARROPA
Aukera PUNTUZKO JERTSETAN



ERLOJU eta BITXI DENDA

ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



Bizarnea baserria nagusi Elizondoko azienda lehiaketan

Zortzi sari eskuratu zituen –'Estrella' izeneko tartean Azpilkuetako baserri honek.

ELIZONDO

Fermin Barazabal, Azpilkuetako Bizarnea baserriko jabeak zortzi sari (hauen artean 'estrella' izeneko) eskuratu zituen Elizondoko behi gorri eta latxa arrazako ardi azienda lehiaketan.

2 eta 6 hilabete arteko azizien lehen saria Garzaingo Landakoa baserrikoentzat izan zen, sei hilabetetik urtebeterako saria bezelaxe. Bertze hainbat sari lortu zituen baserri honek. Arizkungo Bikondoakoak ere ez ziren esku hutsik etxeratu, guztira hameka sari –bortz lehen postuan– irabazi bait zituen.

Bertze hamar sari Garzaingo Elixamendiakoak



'Urrezko Ezteiak' betetako senar-emazteak omendu zituzten Elizondon irailaren 30ean

KARMELE

eraman zituzten. Gainontzeko sariak, Azpilkuetako Medaberria eta Iribarrenea, Iruritako Petrinekoborda eta Peruenea, Arizkungo Ormartea, Almandozko Etxotoa eta Beartzungo Bere-

koetxea baserriek eskuratu zituzten.

Latxa arrazako ardiei dagokionez, mutur gorrietan Azpilkuetako Apaioetxeberriak eraman zituen bi lehen sariak. Mutur bel-

tzetan berriz, Almandozko Etxotoa eta Elbeteko Errotaxainek eskuratu zituzten lehen sariak. Eguraldiak lagundu zuen baina jendearen ustez, sobera denbora joaten da sari banaketan.

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI

ARROPA DENDA



CERVANTES HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

M^{te} Dolores Mirana TOPOGRAFIA

NEURKETAK • PLANOAK



Lur neurketak
Luberriki

Plantazioak, etab.

Santiago 68, 3. Esk. ☎ 580143 • ELIZONDO



ZURE EZKONTZARAKO

FOTO eta BIDEO Erreportai on bat

ELIZONDO ☎ 580491
DONEZTEBE ☎ 450364

MARKOEN TAILERRA eta zure
karreteak ORDU BATEZ REBELATZEN
DITUGU "FUJI" kalitatearekin.

Jar zaitetz esku onetan!

Gure zentroa Metodologia Estetikoan akreditaturik dago.
Dermosteticista batez gidatua eta Mediku Espezialista batez
kontrolatua, zure arazoak moldatzeko
tratamendu pertsonalizatu bati esker.

Gainera Hidromasai Bañera, Sauna, Solariuma, Makilaia
eta ilea kentzeko sistemak (elektrikoa, argizari beroa eta
argizari epela zainendako espeziala) zuretzako.



Beatriz

Lurrindenda eta Apaindegia
☎ 58 02 83 • Santiago 53 • ELIZONDO



JATETXEA

Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

SOULE

Gurutze eta
bilarriak

☎ 45 30 38 ARIZKUN
☎ 12 35 72 IRUÑA

Larrunerako ibilaldia, bortzgarren aldikotz

Etxalar-Sara elkartzea ospatu zen buruilaren 26an

MIXEL ETA JACQUELINE

Bortzgarren aldikotz iragan buruilaren 19an ospatu da Larrunerako ibilaldia 'Euskarak batzen gaitu! Mugarik ez!' lemapean. Biriatu, Urruña eta Sarako herriek parte hartu dute eskualde huntarik. Sarako 30 bat lagun upatu dira Larrun gainerat eta auzo herrietako partaideekin elkartu dira xardin jate baten inguruan.

Etxalar-Sara elkartzea

Buruilaren 26an, Sara eta Etxalarko gazteak bildu dira atsal askari baten inguruan mugaz bi aldeetako auzo herrietako lokarrien azkartzeko asmoarekin. Sarako dantzari, musikari eta gazte



30 bat saratar upatu ziren Larrun gainerat Akelarre egunean

aunitz hor egon dira eta jakin dugunaren arabera giro ona zen.

Uso besta

Urriaren 16 eta 17an ospatuko da Saran Minima eguna. Asteburu osoan eki-

taldi multzoa izanen da: 16an, 7etan Trinketea esku huskako pilota partida. 17an, Minima Eguna: 10etan luzeko partida. 10,30etan meza Sarako kantariekin. Aperitifaz plazan Ezpeletako

txarangarekin. 4etan esku huskako partida. 5etan indar jokoak eta ondotik, Ihi-doy eta Xalbador.

Zazpiak Bat

Urriaren 9tik goiti izanen dira Zazpiak Bat elkar-teak antolatutako dantza ikastaldiak haur eta gazte-entzat, arduradunek jakin arazi dutenez. Larunbatero iraganen dira usadioa den bezala. Bertzalde, helduentzat antolatu ikastaldiak asteazkenean iraganen dira lehen urratsekoentzat eta ortziraletan hobekuntza mailan. Xehetasunak eta izen emaitzak 59542511 (Sophie Elizalde) eta 59542223 (Odile Ayez) telefonoetara deituz.



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • ☎ 580562
IRURITA - BAZTAN

SUKALDE ETA BAINU MOBLEAK

Egoki-ren banatzaile
baimendua



HERRIKO ETXeko EDANTEGIA

*Michel eta Hiltin
Guzendia*

Tfnoa: 59 54 25 19
64310 SARA



BAZTAN FUNERARIA

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
• TRASLADOAK

Jaime Urrutia 53 ELIZONDO
Tfnoak: 580924-580814-580373

MENDI OSTATUA

Santiago 25 - ☎ 580313
ELIZONDO

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan
AMAIUR Tfnoa: 45 30 60

Karrika berritze eta bide hobetzeko obrak finituxeak daude

Urriaren 9an gaupasa, Tuterako Argia ikastolaren alde

ALIZIA OLAIZOLA

Karrika eta bide gehienak ia antolatuak dire. Orain herrian bertan ari dire lanean, plaza inguruetan, harriz eginak ziren paretak berrituz, espaloiak edo azerak egiten eta etxetan inguruz inguru harri xabalez apaintzen. Kale argi edo farola gehiago paratu dire, herriaren sarreran eta herrian bertan, baita Leorlas auzoko lezeetako bidean ere, baina oraindik ez dira martxan jarriak.

Urriaren 9an gaupasa

Andres Diharassarryk



Herriko karrika eta bide gehienak antolatuak daude

Urdazubiko gazteen laguntzarekin gaupasa bat antolatu du udalaren baimenarekin, Tuterako Argia ikastolaren alde. Tuterako ikasto-

lak arazo ekonomiko latzak bizi ditu, eta diru pixko bat bildu nahi dute, ikastola itxi ez dadin. Ez baita bakarrik Tuterako ikastola, baita

Erribera guztiatik joaten dire Tuterako ikastolarat. Argia ikastolan klaseak ikutilu batean izaten dituzte haurrak, ez dutelakoz bertze etxe bat ordaintzeko haina. Denetara 180 ikasle badira.

Gaupasa Urdazubiko frontoian izanen da, arratsko 11etan hasiz eta goizeko 6ak artio iraunez. Talde hauek arituko dire: Piskerra eta Ortzi Nafarroatik, Guk Lapurditik, Txakun Iparraldetik, Beñat Axiari Xiberuatik, Nafarroako gaiteroak eta The Erriberos rock. Erramun Martikorena Behenafarroatik ez da segur etorri ahal izanen den.

ZUGARRAMURDI

Zugarramurdi eta Urdazubiko lezeen arteko bidexka

Proiektu hunen gastuak bi udalen artean ordainduko dire

KORO ETA MARGARI

Aintzineko ale batean, Zugarramurdi eta Sarako lezeen artean dagoen bidexkaren berri eman ginuen eta orain bertze bidexka bat aipatu behar dugu:

Azkeneko sesioan udalak onartu zuen Zugarramurdi eta Urdazubiko lezeen arteko bidexka turistikoko baten proiektu bat mantatzea Francisco Javier Txokarro eta Maria Urmeneta arkitekto urbanistei. Proiektu hunen gastuak bi



Bultzada eman nahi zaio inguruko turismoari

udalen artean ordainduko dire.

Aspalditik gure kexua agertu izan dugu, herria

pixkanaka txikitzen zoaie-la eta, batez ere, lanposturik ez zegoelakoz.

Orain arte nekazaritza eta Dantzarineako bentak genituen, bainan bi hauek ere egoera larrian daude. Beraz, dirudienez laneko afera bertze modu batez konpondu beharko da eta behar bada modua hau izanen da, turismo ekologikoa, etxe ruralak edo nekazal girokoak, lezeak, etabar bultzatuz. Hori bai, beti ingurua errespetatuz.

EZKONTZAK

Jean Uhart eta **Marie Pierre Amorena**, Sarakoak, irailaren 24ean.
Jose Antonio Etxenike Larregi eta **Justi Campos Badiola**, Urdazubi eta Irungoa, irailaren 4ean.
Juan Bengoetxea Ibarrola eta **Sagrario Azkarraga Iribarren**, Urdazubi eta Azpilkuetakoa, urriaren 2an.
Miguel Antonio Zugarramurdi Zestau eta **Idoia Zubieta Salaberria**, Goizuetakoak, irailaren 11an.
Juan Angel Ordoki Fagoaga eta **Jennie Nieves Telletxea Maio**, Lesakakoak, irailaren 11an.
Iñigo M^a Lasa Uzkudun eta **M^a Carmen Berasain Lasarte**, Ibarra eta Berakoa, irailaren 11an.
Fernando Irazoki Altzuguren eta **Beatriz Irazoki Jimenez**, Lesaka eta Berakoa, irailaren 18an.
Jose Antonio Escagues Bidegain eta **M^a Pilar Martiarena Cordoba**, Berakoak, irailaren 15ean.
Miguel Angel Erasun Ariztegi eta **Coro San Sebastian Huizi**, Ituren eta Lesakakoa, irailaren 25ean.
Fernando Cainzos Fernandez eta **Angeles Manuel Diaz**, Doneztebekoa, irailaren 27an.

JAIOTZAK

Hikola Bohhomme, Sarakoa, abuztuaren 28an.
Iñigo Agesta Latasa, Sunbillakoa, irailaren 26an.
Olatz Zabala Narbarte, Goizuetakoa, irailaren 16an.
Mikel Zugarramurdi Osa, Goizuetakoa, irailaren 26an.
Joseba Grazena Urrutia, Doneztebekoa, irailaren 13an.
Unai Mariezkurrena Ursuegi, Urrotzkoa, abuztuaren 30ean.
Irene Prim Pernaute, Elizondokoa, irailaren 17an.
Laura Irigoien Iriarte, Iruritakoa, irailaren 15ean.
Xabier Gil Ziaurritz, Elizondokoa, irailaren 23an.
Sara Otxandorena Zenoz, Gartzaingoa, irailaren 26an.


HERIOTZAK

Clovis Leizagoien, Sarakoa, irailaren 18an, 69 urte.
Miguel Eskudero Mitxelena, Goizuetakoa, irailaren 4ean, 40 urte.
Prudencia Mitxelena Arribillaga, Berakoa, irailaren 28an, 82 urte.
Philip Anthoni Eddison, Zigan, irailaren 24ean, 56 urte.
Pascuala Fernandez Gorriz, Elizondokoa, irailaren 26an, 82 urte.
Jose Joaquin Arretxea Ariztia, Gartzaingoa, irailaren 24ean, 82 urte.
Fernando Goñi Istilart, Elizondokoa, irailaren 27an, 84 urte.
Pedro Idiart Etxeberria, Gartzaingoa, irailaren 29an, 87 urte.
Fidela Erramuzpe Iturriria, Erratzukoa, irailaren 29an, 78 urte.

40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA

**13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,
 2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,
 4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegia bat,
 2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,
 dekorazio denda bat, supermerkatu bat,
 aseguro etxe bat, ileapaindegia mixto bat, drogeria bat,
 bidai agentzia bat, PVCko nahiz zurezko leiho eta ateak,
 hizkuntz akademia bat, moketak eta pinturak, etxe saltzaile bat...**

*Denetarik gauzarik hoberenak.
 Irun erdi-erdian. Parkina eta guzi.*





BORDATXO



DONEZTEBE • NAFARROA



LARUNBATA, URRIAK 9



DENBORALDIA HASTEN DA

DISKOTEKA SARRERA LIBREAREKIN

LARUNBATA
URRIAK 16

DISKOTEKA

LARUNBATA
URRIAK 23

OSTADAR, TALDEA

LARUNBATA, URRIAK 30

ORKESTA • IKUSKIZUNA • MARIACHIA

PACO FORMOSO eta PASSARELA ORKESTA

LARUNBATA
URRIAK 31

DISKOTEKA

HEMEN GAUDE BERRIZ

Bonberoak: Sua hiltzea baino zerbait gehiago

Oronoz-Mugairiko parkeko zerbitzua egun osora zabalduko denaren esperantza dago

Lehenbiziko zitan ezin izan genuen erreportaia egin, euriaren ondorioz uholde ikaragarriak baitzeuden egun hartan Baztan aldean eta harat agertu behar izan zuten. Izan ere, bonberoek lana ez da soilik sua itzaltzea; "ez dugu erranen dena egiten dugula, baina urgentzia zerbitzu gehienak betetzen ditugu -ardiak harkaitz artetik atera, istripuetan lagundu, etxeetako hormaziriak urarekin desegin edo katuak teilatutik jeitsi-, arrisku puntu bat duen edozer" diote Paulino Garcia eta Juan Bautista Oteizak, bigarren txandan Oronoz-Mugairiko parkeko atea parez pare zabaldu dizkiguten bi bonberoek.



Hamar bonbero daude Oronoz-Mugairiko parkean profesionalki fijo bezala lanean. Ebentualen kopurua berriz aldakorra da, kanpainaren arabera, baina normalean 10 eta 20 lagun inguru. Horretaz gain, Lesaka eta Berako bonbero boluntarioak daude, 30 bat. Elkarrekin praktikak egiten dituzte noizbehinka, "baina azken aldi honetan ez gara

elkartu, praktikak hemen edo fabriketan egiten bait ditugu" dio Paulino Garcia, Mugairiko kaboak.

Halere, kopuru hau ez omen da nahikoa eskualde zabal hau hornitzeko: "auniztan, Iruñetik zetozen bitartean gauaren erdian sua itzaltzera pertsona bat bakarrik joatea tokatu zaigu eta hori aski tristea da" dio Juan Bautista Oteizak. Gainera, hemen hainbat langabetu izan arren, Iru-

ñeatik bidaltzen dituzten ebentualak Erribera aldekoak izan ohi dira, "mendia zer den ez dakitenak".

Sute gehienak probokatuak dira, baina gehienetan intentzio txarrik gabe; artzaiak oteak eta sasiak erretzen dituzte beraien aziendak larreak izan ditzaten, baina sua joan egiten zaie. "Artzaiak laguntza izan beharko luke, noiz erre behar duen jakin, Herriko Etxeko guardak kontseilua eman,

bonberoei abisua eman...". Eta sutea itzaltzerako orduan gauza batzuk eduki behar dira kontutan, "sartu ez ezik ateratzeko lekua ere behar dela, haizea ezagutu eta sasi aunitz badaude, jakin noraino igo daiteken sua eta noski, suerte pixkobatizan".

Egun osoko zerbitzua, laister?

Mugairiko parkea goizko 8etatik gaueko 12ak arte zabalik dago, beraz ez dago gaueko zerbitzurik; "hau arazo serioa da, gehien behar denean ez baita go bertako zerbitzurik" eta Iruñeatik etorri behar izaten dute bonberoak. "Nork daki goizaldeko ordubietan ez ote den gertatuko katastroferik haundiena" gehitzen du Juan Bautista Oteizak. Halere, 1986ko otsailaren 18ra

arte egun osoko zerbitzua eskeintzen zen, baina irteera nahiko ez zirela egiten eta kendu zen. Halere, estadistika batzuren arabera, egun osoko zerbitzua duten Lodosa, Zangotza edo Lizarrako parkeetan baino gaueko irteera gehiago egiten omen ziren Mugairin.

"Hain eskualde zabalerako parke bakarra izanik eta hain bonbero gutti izanik, gauez ez badugu irekitzen erraizatu ze zerbitzu eskeintzen dugun" da bonbero guztiak agertzen duten kexua.

"Berriz jartzeko asmoa omen dago, baina hori Iruñako enkontua da" dio Paulino Garciak.

Testua: Aitor AROZENA
Argazkiak: Karmele TOLOSA

SUTEA EZ GERTATZEKO...

- X Estintore bat eduki etxean eta erabiltzen jakin. ■■■
- X Sukaldeko ekstraktorea maiz garbitu -zartagia errez gero, koipea edo gasa ez dadin egon-. ■■■
- X Haize korrientek sua indartu egiten duela kontutan hartu. Ateak itxi, tximeneako tiroa ixteko aukera izan... ■■■
- X Motoa edo motozerra erabili ondotik ez sartu ikuiluan hoztu arte. ■■■
- X Tximenea barnetik urtean behin edo bitan garbitu. ■■■
- X Tximenearen kontra egurrak edo belar idorra ez utzi. Leku pixko bat galdu arren seguritatean irabazten da urrutixeago utzi edo ongi estaliz gero. ■■■
- X Oxigenorik ez eman suari. Bomba batean bihur daiteke eta berehala zabalduko da. ■■■
- X Sua gertatuz gero 088ra edo zuzenean Oronoz-Mugairiko parkeko 592255 telefonora deitu. ■■■

Paulino Garcia, Oronoz-Mugairiko Bonbero Parkeko kaboa

«Suteetan zer egin jakiteko ikastaroak egin beharko lirateke»



► Jendeak ba al daki zer egin behar den sute batean?

► Auniztan borondate hoberenarekin aritu arren ez dakite ongi zertan ari diren eta beldurra ere ematen dute batzutan. Herriko Etxe mailan ikastaroak

antolatu beharko lirateke, egin behar diren bizpahiru gauza eta suak duen arriskua erakusteko, bertzerik gabe.

► Ongi antolatuak al daude

inguruko mendiak?

► Pistei dagokionez nahiko ongi daude. 'Cortafuegos' edo kontrasuak berriz, mendi batzutan badaude bertzeetan ez, batzuk sua lanean ari denean egiten dira. Edozein

• «Abendua eta martxoaren bitartean gertatzen dira sute gehienak» •

moduz, haizegoarekin ez du aunitzerako balio kontrasuak, metro aunitzetakoa ez bada. Praktiko da haizerik

ez dagoenean, baina lan haundia suposatzen du.

► Urtean, zein izaten dira sute arrisku garaiak?

► Sua, gehien bat neguko kanpainan gertatzen da, abenduan hasi eta martxo edo apirila bitarte. Iratzeak eta belarrak idorrak daude hasten da sua.

► Jendeak orokorrean errespetatzen al du mendia?

► Mendia maite ez duen inor ez dut ezagutzen oraindik. Baina mendia zaindu egin behar da.

Irailaren 12an lortu zuten Afrikako mendi altuenaren gaina

Beratar espedizioa, Kilimanjarotik bueltan

*Imanol Larrañaga,
Mikel Sainz, Xabier
Zubieta eta Luis M^a
Pikabea beratarrek
osatutako
mendigoizale
espedizioak, irailaren
12an lortu zuten
Kilimanjaroko gaina
igotzea. Afrikako
kaxkorik altuena igo
eta inguru zoragarri
hori pixko bat
ezagutu ondotik,
berriz bueltan ditugu
lauak herrian.
Han izan duten
esperientziaren berri
izateko, solasalditxo
bat izan dugu
beraiekin*



ttipi-ttapa. *Noiz eta nola bururatu zitzaizuen Kilimanjarora joatea?*

Kilimanjaro. Inguruko mendietan ibiltzen ginen, Pirineoan barna eta joan den urte bukaeran bertze leku bat ezagutu behar genuela pentsatu genuen. Mendi altuago bat egitea bururatu zitzaigun eta Kilimanjaro atera zen. Ia 6.000 metro ditu eta ez da hain zaila.

ttipi-ttapa. *Aintzinetik altura honetako mendirik*

igoak zenituen?

Kilimanjaro. Ez, Pirineotan ibiliak ginen; altuena Aneto, 3.400 metro ingurukoa.

ttipi-ttapa. *Eta 3.000 metrotik 6.000ra pasatzeko entrenamendu berezirik egin zenuten?*

Kilimanjaro. Ez, deus ere. Beno, hemen barna ibili, bertzerik gabe.

ttipi-ttapa. *Nola lortu zenuten espedizio hau burutzeko dirua?*

Kilimanjaro. Aurrekontua milioi terdi ingurukoa izanik, gehien bat ostatuak paratuz atera dugu dirua. Hasieran rifa bat ere egin genuen eta orain Nafarroako Gobernutik dirulaguntzaren bat etorriko ote den esperoan gaude.

ttipi-ttapa. *Beratik aterita Kilimanjarora ailegatzeko ze etapa egin zenituen?*

Kilimanjaro. Miarrizetik Parisera abioiez joan ginen eta Paris-Nairobi abioiezer.

Gero autobusa hartu eta Tanzaniako mugapasatu eta Arusharaino. Han Kilimanjarora igotzeko agentziak daude

ttipi-ttapa. *Hasiera batean, baimenak lortzeko arazoak izan zenituzten?*

Kilimanjaro. Kontu hori hemen zabaldu dela erran digute, baina ez dakigu nondik atera den. Ez genuen inolako problemarik izan. Nairobiri hiru egun egon behar ginen bisatuak egite-

Kilimanjaro: Sumendi agortua



Ibilbide normalaren hasieran ikus daiteken kartela

Kilimanjaro, Tanzaniako iparraldean, ia Kenyako mugan dagoen sumendi agortua eta parke nazionala da. Bertan, zenbait kaxko daude, altuena Uhuru Peak (Independentziaren gaina erran nahi du bertako hizkuntzan, izan ere Britainia Haundiarekiko independentzia lortu zutenean, bertara igo omen ziren zenbait tanzaniar). 5.895 metroko altruera du eta Afrikako mendirik altuena da.

1889an lehen aldiz lortu zuten ofizialki mendi kaxko honetara ailegatzea. Hans Meyer alemana eta Purtscheller austriarra izan ziren hori egin zutenak. Euskaldunak ere mendizaleak izaki, laister hasi ziren Afrikako gaina zanpatu nahian. Zornotzako Andres Espinosa mendigoizaleak 1930garren urteko irailan igo zuen lehen aldiz Kilimanjaroko gaina.

ko, baina ez zitzaigun hiria gustatu eta mugan bertan lortu genituen baimenak.

ttipi-ttapa. Zenbat egunetan iritsi zarete gailurrera?

Kilimanjaro. Bortz egun izaten dira, goiti eta behiti egiteko. Hiru egunetan igo-tzen zara -azken eguna bi etapatan- eta behiti bi egunetan. Gu hasieran bide zailena egin nahi genuen baina doble garestia zen.

ttipi-ttapa. Bertako laguntzaileak izan zenituzten?

Kilimanjaro. Normalki gia eta bere laguntzailea, sukaldaria, eta bi porteadore -batek erropa eta bertzeak janaria eramateko- paratzen dizute. Guk porteadore bakarra hartu genuen janaria eramateko eta bertzeak guk eramanez genuen motxilan

ttipi-ttapa. Nolako harremana izan zenuten hango jendearekin?

Kilimanjaro. Guk ez genekien inglesa eta han inglesa solasten da. Baina beno, saiatzen dira zuri



Kilimanjaro igo aintzinetik Pirineotako mendietan barna ibilia ziren lagunekin

ulertzen eta jende majoa da.

ttipi-ttapa. Gailurra egin ondotik, oporralditxo bat izan zenuten... Nolako da Afrika inguru hori?

Kilimanjaro. Ez ginen tributara joan baina ikusten duzu bizia arrunt desberdina dutela.

ttipi-ttapa. Janariarekin

problemarik bai?

Kilimanjaro. Ez, oilaskoa eta arroza jaten dute. Pasta bat ere bazuten, eskuekin bola bat egin eta jaten zena. Hori jan gabe pekatua zela etortzea erran zigun batek. Badaezpada ketchup bota genion...

ttipi-ttapa. Eta anekdotaren bat...

ren bat...

Kilimanjaro. Han autobusaren gainaldean uzten dira motxilak Deskargatzeko Xabier goiti joan zen eta motxilak jeisten ari zela autobusa martxan paratu zen. Susto ederra...

Testua: Aitor AROZENA
Argazkiak: Karmele TOLOSA

ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU 63 11 88 ☎

▼ Etxebizitzak

• **Leitzan** etxebizitza bat salgai, herri erdian. ☎ 510386. Leitza.

• **Pisua** alokatzen da Donezteben. ☎ 630680.

• **Narbarten**, 90 m²ko pisu amueblatua alokatzeko prest. 3 logela, sukaldea, bainugela eta egongelarekin. ☎ 615122 (gaueko 8etatik 10etara).

• **Pisua** alokatuko nuke Bera edo Lesakan. 31.000 pezeta bitarte ordainduko nuke. ☎ 451518.

▼ Lana

• **Elektrizitate**, pintura eta aparailu ttikien konponketak. ☎ 631283.

• **Karpintero** bezala lan egin nahi nuke, langintza ikasteko asmotan. ☎ 637213.

▼ Salerosketak

• **Renault 18** GTS (POL matrikula), egoera onean, saldu edo bertze kotxe txiki batengatik aldatzen dut. Ordainketarako erraztasunak.

☎ 631283.

• **Renault 5** TL xuria salgai, NA-9719-W, 29.000 kilometro. Deitu arratsaldetan 8-10etara. ☎ 510078.

• **Akumuladoreak**, oliozko berogailuak eta sukaldeko tresna zaharrak salgai prezio onean. ☎ 592157 eguerditan.

• **3 urteko** asto arra salgai. Zikiratua. ☎ 510437.

• **Esne tankea** erosiko nuke, 100-150 litrokoa. ☎ 450492 (eguerditan edo arratsetan).

• **Bulegorako** bi mahai, 160 zm. koak eta ordenagailuarendako 100 zm. ko gehigarria, eta lau aulki (bi biratzaileak) salgai, guztia oso modu onean. Interesatuak 631199ra deitu (Elsa) arratsaldetan edo 630856ra goizetan.

• **Ford Orion** GL 1.6D kotxea salgai. Egoera onean dago eta ITV 94ko uztai-lean pasa beharra. Prezioa 320.000 pezeta negoziagarriak. ☎ 631283.

• **Segadora** salgai, prezio onean. ☎ 630994.

• **Karrera bizikleta** Peugeot markakoa, egoera onean, 25.000 pezetan salgai. ☎ 630832.

• **Basurde** edo erbi ehi-zirako **txakurrak** salgai daude. ☎ 183388 (gauez).

• **Bajera** bat (104 m²) eta **baratza** (187 m²) saltzeko Donezteben. ☎ 450115.

▼ Denetarik

• **Mendi bizikleta** bat, haurrak eramateko silleta eta guzi desagertu da Beran, Zizka parean. ☎ 630607.

• **Garaje** leku bat alokatzen da Lesakan, hilabeteko 3.500 pezeta. ☎ 451518.

• **Konfekzio denda** generoarekin alokatu edo traspasatzen da Irunen. Asunto hagitz interesgarria. ☎ (943) 628167 (Modesta).

• **Gitarra** klaseak ematen dira. ☎ 630217.

▼ Harremanak

• **Ikusi** nahi zaitut, baina ez zara agertzen. Zugana hurbildu nahi, eta ez dakit nola. Ukitzen zaitudala sentitzen dut, baina ametsa da. Ez dut galduko itxaropena... Sutagar zuretzat.

• **Antsa**, Goizuetan urrezko solteroa, zorionak eta segi ezaiguzu atenditzen beste 69 urte gehiagotan. 'Antsa nunca kantsa, con Antsa se deskantsa'. Zure jarraitzaile sutsuenak.

• **Oitzko** Juan Mari eta **Labaiengo** Anabeleri, zorionak zuen ezkontzagatik. Muxu haundi bat. Lagunak.

• **Urdazubiko** Arantxa Soubeletentzat: zorionak urtebetetzean (irailaren 28). Kasu txanpainarekin. Musu bero bat. Zure laguna M.

• **Zorionak** Aresoko Iñaki eta Txomineri beren urtebetetze egunean (irailak 12 eta 13). Muxu haundi bat. Zuen izeba Juana Mari.

• **Leitzako** Amaia Olanori eta Urrozko Loreari zorionak zuen urtebetetzean (irailak 26). Senide-lagunak.



GIZONEZKOEN
MODA

muñeca
de trapo

EMAKUMEZKOEN
MODA

BIAK, IRUNGO LUIS MARIANON



BORTZIRI

ASISTENTZI TEKNIKORAKO ZERBITZUA

* TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa

* Bakarkako, kolektibo edota satellite bidezko antenak ere paratzen ditugu

Itzea 4, behea - BERA Tfnoa: 63 10 91

BENTA - BERRI Larruaren Etxea



▼ Kazadorak, jakak, galtzak, gonak, berokiak, boltso eta eranskinak

▼ Moda saltzen dugu prezio eta kalitate hoberenetan

IBARDIN, Tfnoa: 630 708 - **BERA**

Zure hipoteka zaharra ordezkoa ailegatu zaic

%9,75ko interesarekin

Pasa zaitez gure bulegoetatik

- BERA •
- DONEZTEBE •
- LEITZA •
- LESAKA •




CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



CRISTALERIA VELATE



PARETAN SARTUTAKO ARMAIRUAK

- Kristaleria orokorreen •
 - Barnekaldeen dekorazioa •
 - Bainurako mobleak eta manparak •
 - Pareta ispiluak •
 - Bidriera artistikoak •
- Proiektuak eta aurrekontuak
konpromisorik gabe

.....

DELEGAZIOAK:

ELIZONDO

Pedro Axular karrika, 1
Tfnoa: 58 08 25

IRUÑA

Villava etorbidea 12 Behea
Tfnoa: 13 20 21

DONEZTEBE

Mercaderes 5
Tfnoa: 45 09 91

.....

ALMACENES ETXANIZ, S.A.

Lesakako Iturria anaiak



URRIAN:

Bañera nahiz
dutxako manparatan
eskeintza bereziak
(kolokatzea gure
kontura)

*Irunen zure zerbitzura edozein berritze
edo erreforma zure bainugelarako,
marka hoberenekin, prezio egokienetan*

IRUNen, Juan Arana, 3
Tfnoa eta faxa:
(943) 611767